

2023ko martxoaren 23ko tokiko gobernu-batzarraren erabakiaren laburpena, 2023ko Amurrioko jaietako kartelaren lehiaketa deitzeko.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, deialdiaren pasarteak argitaratu dira. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>).

Erakunde adjudikatzailerak / Organismoa: Amurrioko Udala

Onuradunak: Oinarrietako eskakizunak betetzen dituen edozein pertsona fisiko, bere nazionalitatea edo bizitokia edozein dela ere.

Baldintzak eta aurkezteko modua: Kartela 70 cm luze eta 50 cm zabal izango da, eta euskarri zurrun baten gainean egon beharko du. Formatu bertikalean eta behar bezala enbalatuta aurkeztuko da.

Helburua: Lehiaketaren helburua da 2023ko Amurrioko jaietako kartel ofiziala hautatzea lehiaketaren bidez.

Oinarri arautzaileak: Behin betiko onetsi da 2022ko abenduaren 22ko Amurrioko Udalaren udalbatzaren erabakiaren bidez eta dirulaguntzei buruzko gainerako oinarri arautzaileekin batera, eta horren edukia osorik 2023ko otsailaren 24ko 23. ALHAOn argitaratu zen.

Zenbatekoa: Sari bakarra egongo da, 800 eurokoa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duen abuztuaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren 40/2014 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, 300 eurotik gorako atxikipen oinarria duten eta pertsona fisikoentzat diren sariei % 19ko PFEZ (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) atxikiko zaie. Oinarri hauetan arautzen den saria lortzea beste edozein sari edo dirulaguntzarekin bateragarria da.

Gastua 33478.480 partidari dagokio. Zenbateko horrek dagokion atxikipena izango du, PFEZaren araudian ezarritakoarekin bat.

Oinarriak, informazioa eta agiriak aztertzea: Amurrioko Udaleko Kultura Arloan (Juan Urrutia plaza z/g, 01470 P.K., 945 89 11 61 telefonoa) eta Amurrioko Udalaren web orrian, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik eskaerak aurkezteko epea amaitzen den arte, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Eskabideak aurkezteko tokia: Kultur Etxean, 2023ko martxoaren 31tik apirilaren 15era (Landako kalea 8, 01470 Amurrio).

Eskabideak aurkezteko epea: 2023ko martxoaren 31 eta apirilaren 15 arteko lanegunetan, biak barne, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Aurkeztu beharreko agiriak: Kartelak identifikatu gabe aurkeztuko dira eta lelo bat izango dute atzeko aldean idatzita. Kartelarekin batera itxitako gutun-azala aurkeztuko da, eta horren kanpoko aldean kartelean agertzen den lelo bera idatziko da. Barnean datu hauek idatziko dira: egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.

Balorazio irizpideak: Diseinuaren eduki artistikoa (originaltasuna eta sormen-gaitasuna) (% 25).

Amurrioko jaiei erreferentzia egiten dieten elementu tradizionalak agertzea (% 25).
Kartelaren konposizio-eredua eta jaietako publizitate-tresna gisa “egokia” izatea (% 25).
Tipografia harmoniatsua erabiltzea obra osoan (% 25).

Jakinarazteko modua: Lehiaketaren ebazpena eskatzailearen helbide-elektronikoaren bidez eta webgunearen bidez jakinaraziko da.

Ebazteko epea: hamabost egun.

Deialdiaren ebazpena jakinarazteko epea: Ebazpena ematen denetik hamar eguneko epearen baitan jakinaraziko da.

Ebazpena: Epaimahaia diseinuaren eta artearen esparruan adituak diren 3 pertsonen osatuko dute. Gainera, epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Errekurtsoak: Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazio-auzietarako epaitegian, jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean. Berraztertzeiko hautazko errekurtsua aurkeztu ahal izango da ebatzi zuen erakunde beraren aurrean, jakinarazpena egiten denetik hilabeteko epean.